

# NOKIA 2100

Telefonoaren  
erabilera-gida.

# NOKIA

Merkaturatutako erabiltzailearen gida elektronikoa liburu honetan oinarrituta dago: "Nokiaren erabiltzaileen gidetako hitzak eta baldintzak; 1998ko ekainaren 7a" ("Nokia User's Guides Terms and Conditions, 7th June, 1998".)

# Erabiltzailearen gidaliburua

---

9354312  
1. edizioa

## ADOSTASUN-DEKLARAZIOA

Guk, NOKIA CORPORATION enpresak, gure erantzukizun bakarraren baldintzapean aitortzen dugu NAM-2 produktua kontseiluko honako Arau honetan ezarritako baldintzetara egokitzen dela: 1999/5/EE.

Adostasun-deklarazioaren kopia bat dago helbide honetan:  
[http://www.nokia.com/phones/declaration\\_of\\_conformity/](http://www.nokia.com/phones/declaration_of_conformity/).

Copyright© 2003 Nokia. Eskubide guztiak erreserbatuta.

Debekatuta dago dokumentu hau osorik edo horren zati bat inolako eratan erreproduzitzea, transferitzea, banatzea edo jasotzea, Nokiaren aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

US Patent No 5818437 and other pending patents. T9 text input software Copyright (C) 1997-2003. Tegic Communications, Inc. All rights reserved.

Nokia, Nokia Connecting People, Xpress -on, Space Impact, Snake II eta Link5 Nokia Corporation-en merkataritzako markak edo marka erregistratuak dira. Hemen aipatzen diren gainerako produktuak eta enpresen izenak haien jabeen merkataritzako marka edo marka erregistratuak izan daitezke.

Nokia tune Nokia Corporation-en soinu-marka bat da.

Nokiak etengabe garatzeko politikarekin lan egiten du, eta dokumentu honetan deskribatutako produktuetan aurrez ohartarazi gabe aldaketak eta hobekuntzak egiteko eskubidea bere gain hartzen du.

Nokiak ez du bere gain hartuko, inolako egoeratan, datuen edo diru-sarreraren galera, ez eta inolako kalte berezirik, gertakaririk, ondoriozkorik edo zeharkakorik ere, horien arrazoia edozein dela ere.

Dokumentu honen edukia dagoen dagoenean emango da. Aplikatu beharreko legeak hala eskatzen duenean izan ezik, ez da inolako bermerik -berariazkorik edo inpliziturik- ematen, baina merkaturatzeko eta egokitzeko berme inplizitua ez da mugatzen dokumentu honen zehaztasunera, fidagarritasunera eta edukira. Nokiak dokumentu hau edozein unetan eta aurrez abisatu gabe berrikusteko edo merkatutik kentzeko eskubidea bere egiten du.

Produktu jakin batzuk eskura egotea aldatu egin daiteke eskualde batetik bestera. Galde iezaziozu gertuen duzun Nokia banatzaileari.

9355570/ 2. edizioa

# Aurkibidea

---

ZURE SEGURTASUNERAKO.....	7
Informazio orokorra .....	10
Salmenta-paketean dauden etiketa itsasgarriak .....	10
Sarbide-kodeak .....	10
<b>1. Oinarrizko kontzeptuak.....</b>	<b>12</b>
SIM txartela instalatzea.....	12
Bateria kargatzea.....	13
Piztea eta itzaltzea.....	14
Pantaila-moduak eta pantaila zuria .....	15
Karkasa aldatzea .....	15
Atzeko karkasan argazki bat jartzea.....	17
<b>2. Dei-funtzioak.....</b>	<b>18</b>
Deitzea .....	18
Dei bat aurkibidearen bidez egitea.....	18
Multikonferentzia bat egitea .....	18
Azken zenbakia berriro markatzea.....	19
Markaketa bizkorra .....	19
Dei bati erantzutea.....	20
Ahots-mezuak entzutea.....	20
Eragiketak, dei bat egiten ari den bitartean .....	20
Teklatua blokeatzea .....	21
<b>3. Testua idaztea .....</b>	<b>22</b>
Testu prediktiboaren sarrera aktibatzea eta desaktibatzea .....	22
Testu prediktiboarekin idaztea .....	22

Hitz konposatuak idaztea .....	24
Ohiko bidea erabilia testua idaztea .....	24
<b>4. Telefono-gida (Izenak) .....</b>	<b>25</b>
Izenak eta telefono-zenbakiak bilatzeko .....	25
Aurkibidearen aukerak.....	27
<b>5. Menuko funtzioak .....</b>	<b>28</b>
Menuko funtzioen zerrenda.....	29
Mezuak (01. menua).....	32
Mezuak idazteko (01-1 menua) . .....	32
Testu-mezua irakurtzea (Sarrerako postontzia: 01-2 menua).....	33
Memoriako mezu bat bistaratzera (Irteerako postontzia: 01-3 menua).....	34
Txata (01-4 menua).....	34
Irudidun mezuak (01-5 menua).....	35
Irudidun mezu bat jasotzean.....	35
Irudidun mezu baten aukerak .....	35
Banaketa-zerrendak (01-6 menua) .....	35
Txantiloak (01-7 menua) .....	36
Aurpegierak (01-8 menua).....	36
Mezuak ezabatzeko (01-9 menua) .....	37
Mezuen aukerak (01-10 menua) .....	37
1 modua (01-10-1 menua) .....	37
Komunak (01-10-2 menua) .....	38
Hedapen-zerbitzua (01-11 menua).....	38
Ahots-postontziko zenbakia (01-12 menua) .....	39
Zerbitzu-komandoen editorea (01-13 menua).....	39
Deien erregistroak. (2 menua).....	39
Azken deien zerrenda .....	39

Deien kontagailua.....	40
Moduak (3. menua).....	41
Aukerak (4. menua).....	41
Tonuen aukerak (4-1 menua).....	42
Deiak doitzea (4-2 menua).....	42
Telefonoaren aukerak (4-3 menua).....	44
Data eta ordua doitzea (4-4 menua).....	45
Erlojua (4-4-1 menua).....	45
Deiak doitzea (4-4-2 menua).....	45
Data eta orduaren eguneratze automatikoa (4-4-3 menua).....	45
Teklatua blokeatzeko aukerak (4-5 menua).....	45
Osagarrien aukerak (4-6 menua).....	46
Segurtasun-aukerak (4-7 menua).....	47
Hasierako balioak berriz ezartzeko (4-8 menua).....	48
Iratzargailua (5 menua).....	48
Abisu-oharrak (6 menua).....	49
Jokoak (7 menua).....	49
Gehigarriak (8 menua).....	50
Kalkulagailua (8-1 menua).....	50
Kalkuluak egitea.....	51
Moneta-trukea egitea.....	51
Kronometroa (8-2 menua).....	51
Zatitutako denboren edo faseen erregistroa.....	51
Atzerako kontaktaren tenporizadorea (8-3 menua).....	52
Irudien editorea (8-4 menua).....	53
Irudiak marraztea.....	53
Marrazteko aukerak.....	54
Konpositorea (8-5 menua).....	54

SIM zerbitzuak (9 menua) .....	55
6. Bateriari buruzko informazioa .....	56
Kargatzea eta deskargatzea .....	56
Zainketa eta mantentze-lana.....	58
Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua .....	60

# ZURE SEGURTASUNERAKO

---

Irakurri jarraibide erraz hauek. Arauak ez errespetatzea arriskutsua edo legez kontrakoa izan daiteke. Eskuliburu honetan informazio xeheagoa aurkituko duzu.



Ez piztu telefonoa mugikorrak erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.



## ERREPIDEAN ERNE IBILTZEA FUNTSEZKOA DA

Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zaren bitartean.



## INTERFERENTZIAK

Telefono mugikor guztiek jaso ditzakete haien errendimenduari eragin diezaioketen interferentziak.



## ITZALI TELEFONOA OSPITALEETAN

Bete horren inguruko araudia. Itzali telefonoa tresna mediko batetik gertu zaudenean.



## ITZALI TELEFONOA HEGAZKINETAN

Haririk gabeko gailuak –esate baterako telefono mugikorrak– erabiltzeak interferentziak sor ditzake hegazkinetan.



## ITZALI TELEFONOA GASOLINA-ZERBITZUGUNEETAN

Ez erabili telefonoa zerbitzuguneetan. Ez erabili erregaitik edo produktu kimikoetatik gertu.



## ITZALI TELEFONOA LEHERGAIETATIK GERTU

Ez erabili telefonoa leherketak egiten dituzten lekuetan. Irakurri murrizketak eta bete horren inguruko arau guztiak.





### ERABILI ZENTZUZ

Ez erabili telefonoa ohiko posizioan ez bada. Ez ukitu antena beharrezkoa ez bada.



### ZERBITZU TEKNIKO GAITUA

Zerbitzu tekniko gaituko langileek bakarrik instalatu edo konpondu behar dute ekipoa.



### OSAGARRIAK ETA BATERIAK

Erabili fabrikatzaileak onartutako osagarriak eta bateriak. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



### URAREKIKO ERRESISTENTZIA

Zure telefonoak ezin du ura jasan. Ez ezazu busti.



### SEGURTASUN-KOPIAK

Gogoan izan datu garrantzitsu guztien segurtasun-kopiak egin behar dituzula.



### BESTE GAILU BATZUEKIKO KONEXIOA

Beste gailu batekin konektatu nahi baduzu, lehenik irakurri dagokion erabiltzailearen gidaliburua, segurtasun-jarraibideak zein diren ongi jakiteko. Ez konektatu bateraezinak diren produktuak.



### DEIAK

Ziurtatu telefonoa piztuta eta martxan dagoela. Markatu telefono-zenbakia, baita aurrezenbakia ere, eta, ondoren, sakatu . Dei bat amaitzeko, sakatu . Dei bati erantzuteko, sakatu .



### LARRIALDI-DEIAK

Ziurtatu telefonoa piztuta eta martxan dagoela. Sakatu behar adina alditan (adibidez, dei bat amaitzeko, menuetik ateratzeko, etab.) pantaila ezabatzeko. Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu . Adierazi zure kokapena. Ez moztu deia hori eskatu arte.

## ■ Sare-zerbitzuak

Gidaliburu honetan deskribatzen den telefono mugikorra EGSM 900 eta GSM 1800 sareetan erabiltzeko dago onartuta.

Bi bandako funtzioa sarearen araberakoa da. Kontsultatu tokiko zerbitzu-operadoreari funtzio hori kontratatu eta erabil dezakezun.

Gida honetan dauden funtzio batzuk sareko zerbitzuak dira. Telefonía mugikorreko zure operadoreari kontratatu beharreko zerbitzu bereziak dira. Sare-zerbitzuak erabili ahal izateko, operadorearekin kontratatu behar dituzu, eta horiek erabiltzeko behar diren jarraibideak eskuratu.



**Oharra:** Baliteke sare batzuk ez onartzea hizkuntzari dagozkion karaktere edo zerbitzu guztiak.

## ■ Kargagailuak eta osagarriak

Kargagailua erabili aurretik, egiaztatu modeloaren zenbakia bateragarria den jakiteko. Gailu hau ACP-7, ACP-8 eta LCH-9 erabilita elikatze diseinatuta dago.



**Oharra:** Erabili bakarrik telefonoaren fabrikatzaileak telefono-modelo honentzat onartutako bateriak, kargagailuak eta osagarriak. Beste edozein mota erabiliz gero, telefonoaren onarpen edo berme guztiak bertan behera geratuko dira, eta arriskutsua izan daiteke.

Onartutako osagarriren bat badagoen jakiteko, jarri harremanetan banatzailearekin.

Edozein osagarriren elikatze-haria deskonektatzen duzunean, heldu entxufeari eta tira egin, ez egin tira haritik.

## Informazio orokorra

---

### ■ Salmenta-paketeen dauden etiketa itsasgarriak

Etiketa itsasgarriek mantentze-lanekin eta bezeroarentzako asistentziarekin zerikusia duen informazio interesgarria dute. Gorde itzazu leku seguruan.

Itsatsi **A** etiketa paketetan aurkituko duzun Nokia Kluberako Gonbit Txartelean.

Itsatsi **B** etiketa itsasgarria berme-txartelean.

### ■ Sarbide-kodeak

- **Segurtasun-kodea:** Telefonoarekin batera emango dizuten kode honek zure telefonoa baimenik gabe erabiltzea eragozten du. Aurrez definitutako kodea 12345 da.

Kontsulta ezazu **Segurtasun-aukerak (4-7 menua)** atala 47. orrialdean, nola funtzionatzen duen ikusteko.

- **PIN kodea:** SIM txartelarekin batera emango dizuten kode honek zure telefonoa baimenik gabe erabiltzea eragozten du.

Aktiba ezazu *Petición del código PIN* aukera *Opciones de seguridad* menuan (ikus **Segurtasun-aukerak (4-7 menua)** 47. orrialdean), telefonoa pizten den bakoitzean kodea eska dezan.

PIN kodea hiru aldiz segidan gaizki sartuz gero, SIM txartela blokeatu egingo da. PUK kodea sartu beharko duzu, SIM txartela blokeatzeko, eta PIN kode berria definitu.

- **PIN2 kodea:** Kode hau SIM txartel batzuekin batera ematen da eta ezinbestekoa da zenbait zerbitzu erabiltzeko, hala nola tarifazio-unitateen doikuntzan. PIN2 kodea hiru aldiz segidan gaizki sartuz gero, pantailan *Código PIN2 bloqueado* mezua aterako da eta PUK2 kodea sartzeko eskatuko dizu.

Alda itzazu segurtasun-kodea eta PIN eta PIN2 kodeak *Opciones de seguridad* menuko *Cambio de los códigos de acceso* aukeran (ikus *Segurtasun-aukerak (4-7 menua)* 47. orrialdean). Gorde kode berriak leku sekretu eta seguruan, telefonotik urrun.

- **PUK eta PUK2 kodeak:** Kodeak SIM txartelarekin entregatzen ez badizkizute, jarri harremanetan zure zerbitzu-operadorearekin.

# 1. Oinarrizko kontzeptuak

---

## ■ SIM txartela instalatzea


- Ez utzi SIM txartel txikia haurren eskueran.
- SIM txartela eta haren kontaktuak oso erraz honda daitezke harramazka edo tolesturekin; kontuz erabili behar duzu, beraz, telefonoan sartzerakoan edo ateratzerakoan.
- SIM txartela instalatu aurretik, ziurta zaitetz telefonoa itzalita eta deskonektatuta dagoela; ondoren, atera batera.




1. Sakatu atzeko karkasa irekitzeko botoia (1), ireki goitik (2) eta atera.




2. Bateria kentzeko, altxa ezazu ateratzeko daukan erlaintetik edo tartetik tira eginez (3). Ireki SIM txartelaren estalkia biraraziz (4).



3. Atera poliki SIM txartela bere kokalekutik (5). Ziurtatu txartelaren urre koloreko konektoreak behera begira daudela, eta alakatutako izkina eskuinean dagoela. Biraraz ezazu berriro Sim txartelaren estalkia blokeatzeko (6).



4. Jar itzazu parean bateriaren urre koloreko konektoreak eta telefonoarenak. Sakatu bateriaren beste aldearen gainean dagokion lekuan sartuta gelditu arte (7).




5. Jar ezazu karkasaren beheko aldea telefonoaren beheko aldearen parean; jar ezazu atzeko karkasaren goiko aldea haren gainean, eta sakatu, bere tokian sartu arte (8).

## ■ Bateria kargatzea

Ez kargatu bateria telefonoak bi karkasetakoren bat falta badu.

1. Konektatu kargagailuaren kablea telefonoaren oinarrira.
2. Konektatu kargagailua korrante alternoko hormako hartune batera. Karga-adierazlearen barra mugitzen hasiko da.
  - ACP-7 kargagailuarekin, BLD-3 bateria kargatzeko, 3 ordu eta erdi behar da gehienez.
  - Pantailan *No está cargando* agertzen bada, deskonektatu kargagailua; konektatu eta saiatu berriro. Bateria oraindik ere kargatzen ez bada, jar zaituz harremanetan zure banatzailearekin.
3. Barrak mugitzeari uzten dionean, bateria erabat kargatuta egongo da. Deskonektatu kargagailua korrante alternoko hartunetik eta telefonotik.



## ■ Piztea eta itzaltzea



**Oharra!** Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Luze sakatu  tekla.



## ONDO FUNTZIONATZEKO GOMENDIOAK:




Telefonoak antena du. Irrati-uhinen bidezko beste transmisio-gailu batzuekin gertatzen den bezala, telefonoa piztuta dagoenean, ez ukitu antena beharrezkoa ez bada. Gorputzak antena ukitzeak deiaren kalitateari eragiten dio, eta telefonoak funtzionatzeko behar duen potentzia-maila inolako beharrik gabe igoaz dezake. Hitz egiten ari zarenean antena ukitzen ez baduzu, antenaren errendimendua optimizatu egingo da, eta telefonoko elkarrizketaren iraupena ere bai.

## ■ Pantaila-moduak eta pantaila zuria

Ondoren deskribatzen diren adierazleak telefonoa erabiltzeko prest dagoenean eta erabiltzaileak karaktererik sartu ez duenean agertzen dira. Pantaila honi "pantaila zuria" esaten zaio.

1. Telefonoak erabiltzen duen sare zelularra adierazten du. Operadorearen izena edo logotipoa izan daiteke.



2. Sare zelularrak uneko kokapenean seinalearen zein intentsitate duen adierazten du.
3. Bateriaren karga-maila adierazten du.
4. Funtzio-teklen uneko funtzioa adierazten du.

## ■ Karkasa aldatzea

Tapa aldatu aurretik, egiazta ezazu telefonoa itzalita eta kargagailutik edo beste edozein gailutatik deskonektatuta dagoela. Gorde eta erabili beti telefonoa tapak jarrita dituela.




1. Sakatu atzeko karkasa irekitzeko botoia (1), ireki goitik (2) eta atera.



2. Atera pixkanaka aurreko karkasa eta teklak babesteko pieza (3).



3. Sar ezazu teklak babesteko pieza, aurreko karkasa berrian (4).



4. Jar itzazu parean aurreko karkasaren goiko aldea eta sakatu karkasa horren kontra bere tokian sartu arte (5).




5. Jar ezazu karkasaren beheko aldea telefonoaren beheko aldearen parean; jar ezazu atzeko karkasaren goiko aldea haren gainean, eta sakatu, bere tokian sartu arte (6).



## ■ Atzeko karkasan argazki bat jartzea

Atzeko karkasan argazki bat sar daiteke. Argazkiaren tamainak gehienez 40 mm x 28,5 mm izan behar du. Atera ezazu karkasa lehen adierazi bezala; ikus Karkasa aldatzea 15. orrialdean.

1. Altxa ezazu poliki argazkiari eusteko gomazko gailua atzeko karkasaren beheko aldetik (1).
2. Sar ezazu argazkia, irudia karkasaren leiho gardenera begira dagoela (2).
3. Jar ezazu berriro bere tokian eusteko gomazko gailua (3).





## 2. Dei-funtzioak





---

### ■ Deitzea

1. Sartu hartzailearen telefono-zenbakia, baita aurrezenbakia ere.


Nazioarteko deiak egiteko: Sartu "+" karakterea,  bi aldiz sakatuz; sartu herrialdeko (eskualdeko) kodea, aurrezenbakiaren (behar izanez gero, kendu ezkerreko 0).

Sakatu **Borrar**, kurtsorearen ezkerreko digitua ezabatzeko; beharrezkoa bada, eraman kurtsorea nahi duzun tokira  edo  sakatuz.

2. Sakatu  zenbaki horretara deitzeko. Sakatu  entzungailuaren edo esku libreko kit eramangarriaren bolumena igotzeko, edo  jaisteko.
3. Sakatu  deia amaitzeko edo dei-saiakera geldiarazteko.


### Dei bat aurkibidearen bidez egitea

Pantaila zuri dagoela, sakatu  edo  nahi duzun izeneraino joateko.





Sakatu  zenbaki horretara deitzeko.

### Multikonferentzia bat egitea



Multikonferentzia sare-zerbitzu bat da eta dei berean lau pertsona batera aritzeko aukera ematen du.

1. Deitu lehenengo solaskidearen zenbakira. Sartu zenbakia edo aukeratu aurkibidean eta sakatu **Llamar**.
2. Beste solaskide bati deitzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Llamada nueva*.
3. Dei berri bati erantzundakoan, sartu hori ere multikonferentzian **Opciones** sakatuz eta **Multiconferenc.** aukeratuz.
4. Multikonferentzian beste solaskide bat sartzeko, eman berriro 1etik 3rako pausoak.
5. Multikonferentzia amaitzeko, sakatu .


## Azken zenbakia berriro markatzea

Deitu dituzun edo deitzen saiatu zaren azken 10 zenbakietako bat berriro markatzeko: Pantaila zuri dagoela, sakatu , mugitu  edo  teklarekin nahi duzun zenbaki edo izeneraino eta sakatu .

## Markaketa bizkorra



Sakatu **Nombres** eta aukeratu *Marcar. rápida*. Aukeratu nahi duzun tekla, (-) eta sakatu **Asignar**. Aukeratu nahi duzun izena eta sakatu **Selecc.**

Telefono-zenbakia zenbaki-tekla bati esleitu ondoren, markaketa bizkorra egiteko aukera hauek dituzu:


- Sakatu dagokion zenbaki-tekla eta sakatu , edo

- *Marcación rápida* aukera aktibatuta badago, eduki sakatuta dagokion zenbaki-tekla deia hasi bitartean (ikus *Deiak doitzea* (4-2 menua) 42. orrialdean).

## ■ Deia bati erantzutea

Pantaila zuri dagoela, sakatu . Deia amaitzeko edo erantzun gabe baztertzeko, sakatu .

## ■ Ahots-mezuak entzutea

Ahots-postontzia sare-zerbitzu bat da. Informazio gehiago izateko eta ahots-postontziko zure zenbakia jakiteko, kontsultatu zure zerbitzu-hornitzaileari. Pantaila zuri dagoela, sakatu luze  ahots-postontzira deitzeko. Ahots-postontzia aldatzeko, ikus *Ahots-postontziko zenbakia* (01-12 menua) 39. orrialdean.

Deiak ahots-postontzira desbideratzeko, ikus "*Deiak desbideratzea*" 42. orrialdean.


## ■ Eragiketak, deia bat egiten ari den bitartean

Dei batean, sakatu *Opciones* aukera hauek izateko: Aukera horietako asko sare-zerbitzuak dira.


*Silenciar micro* edo *Micrófono*, *Retener* edo *Recuperar*, *Llamada nueva*, *Responder*, *Rechazar*, *Finalizar todas*, *Guía*, *Enviar DTMF*, *Conmutar* eta *Menú*.

## ■ Teklatua blokeatzea


Teklatua blokeatuz gero, teklak ez dira nahi gabe sakatuko.

**Teklatua blokeatzeko edo desblokeatzeko:** Pantaila zuri dagoela, sakatu **Menú** eta, ondoren,  azkar-azkar.

Halaber, telefonoa konfigura daiteke denbora bat pasatutakoan teklatuaren blokeoa aktibatzeko. Ikus **Teklatua blokeatzeko aukerak (4-5 menua)** 45. orrialdean.



Blokeatzeko aukera aktibatuta dagoenean,  adierazlea agertuko da pantailaren goiko aldean.



**Oharra:** Teklatua babesteko aukera aktibatuta dagoenean, telefonoan programatutako larrialdi-zenbakietara dei daiteke (adibidez, 112 zenbakira edo beste larrialdi-zenbaki ofizial batera). Markatu larrialdi-zenbakia eta sakatu . Azken digitua sakatu arte ez da zenbakirik bistaratuko.

### 3. Testua idaztea

---

Testua bi modutan sar dezakezu, ohiko metodoaren bidez,  adierazlearekin, edo testu prediktiboaren sarrera deituriko beste batez,  teklaren bidez.

#### ■ Testu prediktiboaren sarrera aktibatzea eta desaktibatzea

Idazten hastera zoazenean, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Diccionario*.

- Testu prediktiboarekin idazteko, aukeratu hiztegien aukera-zerrendako hizkuntza bat. Zerrendako hizkuntzekin bakarrik idatz daiteke testu prediktiboaren bidez.
- Testua sartzeko ohiko metodoa berriro erabiltzeko, sakatu *Diccionario no*.













**Iradokizuna:** Testu prediktiboaren aukera bizkor aktibatu edo desaktibatzeko, sakatu bi aldiz  edo luze sakatu *Opciones* tekla.



#### ■ Testu prediktiboarekin idaztea

Testu prediktiboa sartzeko testuak idazteko era erraz bat da.

Testu prediktiboa sartzeko, telefonoak duen hiztegi bat erabiltzen da, eta hiztegi horretara hitz gehiago sar daitezke.

1. Sartu nahi duzun hitza, letra bakoitzeko tekla behin bakarrik sakatzuz. Hitza aldatu egiten da tekla bat sakatzen duzun bakoitzean. Adibidez, ingeleseko hiztegia aukeratuta dagoela 'Nokia' idazteko, sakatu , , , , .

  - Kurtsorearen ezkerreko aldeko karakterea ezabatzeko, sakatu **Borrar**. Dena ezabatzeko, eduki luze sakatuta tekla hori.
  - Letra larriak eta xeheak tartekatzeko, edo ohiko testua eta testu prediktiboa erabiltzea txandakatzeko, sakatu  behin eta berriz eta egiaztatu adierazlea pantailaren goiko aldean agertzen dela.
  - Letretatik zenbakietara aldatzeko, eduki sakatuta .
  - Puntuazio-markak sartzeko, sakatu  behin eta berriz.
  - Karaktere berezien zerrenda izateko, eduki sakatuta , aukeratu nahi duzun karakterea eta sakatu **Usar**.
  - Zenbaki bat sartzeko, eduki sakatuta dagokion zenbaki-tekla. Zenbakiak sartzeko, eduki sakatuta  eta sartu zenbakiak.

2. Hitza zuzena bada, sakatu  eta hasi hurrengo idazten.
  - Aldatu nahi baduzu, sakatu behin eta berriz  nahi duzun hitza atera arte.
  - Hitzaren atzean "?" karakterea agertzen bada, horrek esan nahiko du hitza ez dagoela hiztegian. Hitz hori hiztegian sartzeko, sakatu **Escribir**, sartu hitza (testua idazteko ohiko era erabilia) eta hautatu **Aceptar**.












## Hitz konposatuak idaztea

Idatzi hitzaren lehen zatia, sakatu  eta, gero, idatzi bigarrena.

## ■ Ohiko bidea erabilita testua idaztea

Sakatu behin eta berriz nahi duzun letrarekin markatutako tekla, zuk nahi duzun letra agertu arte.

Erabili funtzio hauek testua editatzeko:

- Zuriune bat gehitzeko, sakatu .
- Puntuazio-marka bat edo karaktere berezi bat gehitzeko, sakatu behin eta berriz , edo sakatu , nahi duzun karakterea aukeratu eta, azkenik, sakatu **Usar**.
- Kurtsorea ezkerrera edo eskuinera mugitzeko, sakatu  eta , hurrenez hurren.
- Kurtsorearen ezkerreko aldeko karakterea ezabatzeko, sakatu **Borrar**. Dena ezabatzeko, eduki luze sakatuta tekla hori.
- Letra larri eta letra xehe artean aldatzeko, sakatu .
- Zenbaki bat sartzeko, eduki sakatuta nahi duzun zenbaki-tekla. Letretatik zenbakietara aldatzeko, eduki sakatuta .
- Aurreko letra dagoen tekla bereko letra bat idazteko, sakatu  edo  (edo itxaron kurtsorea agertu arte) eta idatzi beste letra bat.



## 4. Telefono-gida (Izenak)



---

Telefonoaren memorian (barne-aurkibidea) eta SIM txartelaren memorian (SIM aurkibidea) telefono-zenbakiak eta izenak gorde daitezke. Barne-aurkibidean 100 izen gorde daitezke.





Aurkibidera sartzeko, pantaila zuri dagoela sakatu **Nombres**. Hitz egiten ari zarenean aurkibidean sartzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Guía*.

### ■ Izenak eta telefono-zenbakiak bilatzeko

Pantaila zuri dagoela sakatu **Nombres** eta aukeratu *Buscar*. Idatzi aurkitu nahi duzun izenaren letra eta sakatu **Buscar**. Nahi duzun izena bilatzeko, sakatu  edo 

Izena edo telefono-zenbakia SIM txartelaren memorian baldin badago,  ikurra azalduko da pantailaren eskuinaldeko goiko ertzean. Aldiz, telefonoaren barne-memorian gordeta badago,  ikurra agertuko da.



**BILAKETA BIZKORRA:** Pantaila zuri dagoela, sakatu  edo  eta idatzi izenaren lehen letra. Mugitu  edo  teklekin nahi duzun izena bilatzeko.

Halaber, aukera hauek erabil daitezke:

- *Núms. Servicio.* Zerbitzu-hornitzailearen zerbitzu-zenbakietara deitzeko, zenbaki horiek SIM txartelean sartuta baldin badaude. (Sare-zerbitzua).
- *Números info.* Zerbitzu-hornitzailearen informazio-zenbakietara deitzeko, SIM txartelean sartuta badaude. (Servicio de red)
- *Añadir nombre.* Izenak eta telefono-zenbakiak aurkibidean gordetzeko.
- *Borrar.* Aurkibidetik, izenak eta telefono-zenbakiak ezabatzeko, banan-banan edo denak batera
- *Copiar.* Izenak edo telefono-zenbakiak banan-banan edo denak batera telefono-memoriatik SIM txarteleko memoriara, edo alderantziz, kopiatzeko.
- *Asignar señal.* Zenbaki jakin batetik egindako deia jasotzean dei-seinale jakin bat egiteko moduan konfiguratu daiteke telefonoa. Nahi duzun zenbakia edo izena aukeratu eta sakatu **Asignar**. Kontuan izan funtzio hau erabilgarri izateko telefonoak eta sareak gai izan behar dutela deitzen duen pertsona identifikatzeko eta identitate hori bidaltzeko.

## ■ Aurkibidearen aukerak

Pantaila zuri dagoela sakatu **Nombres** eta aukeratu *Opciones*. Ondoren, aukeratu:



- *Memoria en uso*: izenak eta zenbakiak *Teléfonoan Tarjeta SIM*en gorde behar diren aukeratzeko. Kontuan izan SIM txartela aldatutakoan, automatikoki, SIM txartelaren memoria aukeratzen dela.
- *Vista de guía*: izenak eta telefono-zenbakiak nola bistaratuko diren aukeratzeko, dela *Lista nombres* moduan (hiru izen batera), dela *Nombre y nº* moduan (izen bat eta zenbaki bat bakoitzeko), dela *Fuente grande* moduan (izen bat bakoitzeko).
- *Estado de la memoria*. Aurkibide bakoitzean zenbat izen eta zenbaki dauden eta zenbat gehiago gorde daitezkeen ikusteko.


## 5. Menuko funtzioak

---

Menuetako funtzio nagusiak honela erabil ditzakezu:

Menuan gora eta behera ibiliz





1. Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela.
2. Sakatu  edo  menu nagusira joateko eta sakatu **Selecc.** horra sartzeko. Menu nagusitik ateratzeko, sakatu **Salir**.
3. Menuak azpimenuak baditu, joan nahi duzunera eta sakatu **Selecc.** bertara sartzeko. Azpimenu batetik irteteko, sakatu **Atrás**.

Menu-aukeretan egindako aldaketak gorde nahi ez badituzu, sakatu  edo eduki sakatuta **Atrás**.

**Metodo laburtuaren bidez**

Menuak, azpimenuak eta aukerak zenbakituta daude. Zenbaki horiei metodo laburtu deitzen zaie.

Pantaila zuri dagoela, sakatu **Menú** eta sartu azkar-azkar –hiru segundo baino lehen– sartu nahi duzun menuari dagokion metodo laburtuko zenbakia. Egin gauza bera azpimenuekin.

Adibidez, *Servicio de llamada en espera* aktibatu nahi baduzu, sakatu **Menú**,  (*Opciones*),  (*Ajustes de llamadas*),  (*Servicio de llamada en espera*),  (*Activar*).

Kontuan izan Mezuentzako metodo laburtuko zenbakia 01 dela.

## ■ Menuko funtzioen zerrenda

### 1. Mensajes



1. Escribir mensaje
2. Buzón de entrada
3. Buzón de salida
4. Chat
5. Mensajes con imágenes
6. Listas de distribución
7. Plantillas
8. Emoticonos
9. Borrar mensajes
10. Opciones de los mensajes
11. Servicio de difusión
12. Número del buzón de voz 1
13. Editor de comandos de servicio

### 2. Registro llam.



1. Llamadas perdidas
2. Llamadas recibidas
3. Llamadas enviadas
4. Borrar las listas de las últimas llamadas
5. Duración de las llamadas

- 
1. Litekeena da ez agertzea, sareko operadoreak edo zerbitzu-hornitzaileak ahots-postontziaren zenbakia SIM txartelean gorde badu.

- 6. Costes de llamadas
- 7. Opciones de costes de llamadas
- 8. Saldo de prepago

### 3. Modos

- 1. Normal
- 2. Silencio
- 3. Un "bip"
- 4. Muy alto
- 5. Estilo propio
- 6. (vacía)



### 4. Opciones

- 1. Opciones de tonos
- 2. Ajustes de llamadas
- 3. Opciones del teléfono
- 4. Ajustes de fecha y hora
- 5. Opciones de bloqueo del teclado
- 6. Opciones de accesorios
- 7. Opciones de seguridad
- 8. Restablecer los valores iniciales



### 5. Despertador



## 6. Notas aviso

1. Añadir nueva
2. Ver todas
3. Borrar



## 7. Juegos



## 8. Extras

1. Calculadora
2. Cronómetro
3. Temporizador de cuenta atrás
4. Editor de imágenes
5. Compositor



## 9. Servicios SIM 1





## ■ Mezuak (01. menua)



### Mezuak idazteko (01-1 menua)

Mezu kateatuak idatzi eta bidal daitezke (sare-zerbitzua). Fakturazioa, orduan, zenbait atalez osatutako mezua osatzeko behar diren mezu arrunten arabera egingo da. Karaktere bereziak (Unicode) erabiliz gero, litekeena da mezua osatzeko bestela baino atal gehiago behar izatea. Kontuan izan litekeena dela testu prediktiboak sartzeko Unicode karaktereak erabiltzea.

Mezua bidaltzeko, mezuen zentroaren telefono-zenbakiak telefonoan gordeta egon behar du. Ikus **Mezuen aukerak (01-10 menua)** 37. orrialdean.

1. Idatzi mezua. Pantailaren goiko eskuineko aldean agertzen dira mezuaren karaktere-kopurua eta oraingo mezuaren zatia zenbatgarrena den.
2. Mezua amaitutakoan, sakatu **Opciones**, aukeratu *Enviar*, sartu hartzailearen telefono-zenbakia eta sakatu **Aceptar**.

Mezuak lagun bati baino gehiagori bidali nahi badizkiezu, aukeratu *Opciones envío* eta *Enviar a varios*; joan lehen hartzailearenganaino eta sakatu **Aceptar**. Egin gauza bera gainerako hartzaileekin, eta amaitzeko, sakatu **Hecho**.


Aurrez definitutako banaketa-zerrenda batera mezu bat bidaltzeko, aukeratu *Opciones envío* eta *Enviar a lista*. Banaketa-zerrendak definitu eta editatzeko, ikus **Banaketa-zerrenda (01-6 menua)** 35. orrialdean.

Gainerako aukerak hauek dira: *Usar plantilla, Ins. emoticono, Diccionario, Modo de envío* (ikus Mezuen aukerak (01–10 menua) 37. orrialdean), *Guardar* eta *Borrar*.



**Oharra:** SMS sare-zerbitzuaren bidez mezu bat bidaltzen duzunean, baliteke telefonoan " *Mensaje enviado*" testua agertzea. Horrek esan nahi du telefonoak mezua bidali duela telefonoan programatutako mezu-zentroaren zenbakira. Ez du esan nahi hartzaileak mezua jaso duenik. SMS zerbitzuei buruzko informazio xeheagoa nahi baduzu, kontsultatu zure zerbitzu-hornitzaileari.

## Testu-mezua irakurtzea (Sarrerako postontzia: 01–2 menua)

Pantaila zuri dagoela testu-mezu bat jasotakoan, mezu-kopurua eta adierazlea agertuko dira .

1. Mezuak segituan ikusteko, sakatu *Leer*.  
Mezuak geroago ikusteko, sakatu *Salir*. Joan *Buzón de entrada* (01-2 menua) aukerara, mezuak irakurri nahi dituzunean.
2. Mezuan zehar mugitzeko, erabili desplazamendu-teklak.
3. Mezua irakurtzen duzun bitartean, sakatu *Opciones* aukera beste aukera hauetan sartzeko. *Borrar, Responder, Chat, Editar, Usar número, Como nota av., Reenviar, Detalles*.

## Memoriako mezu bat bistaratzea (Irteerako postontzia: 01-3 menua)

*Buzón de salida* menuan, *Escribir mensaje* menuan (01-1 menuan) gordetako mezuak ikus ditzakezu. Sakatu *Opciones* aukera hauetan sartzeko: *Borrar*, *Editar*, *Usar número*, *Como nota av*, *Reenviar*.

## Txata (01-4 menua)

Beste pertsona batekin elkarrizketa bat izan dezakezu, beste aukerak baino bizkorragoa den testu-mezuen zerbitzu hau erabilita. Txat-saio bat hasteko, sakatu *Menú*, aukeratu *Mensajes* eta *Chat*, edo, bestela, aukeratu *Opciones* eta *Chat* jasotako testu-mezu bat irakurtzeko.

1. Sartu beste solaskidearen telefono-zenbakia, edo hartu agendatik, eta sakatu *Aceptar*.
2. Sartu txatean erabili nahi duzun ezizena eta sakatu *Atrás*.
3. Sartu mezua, sakatu *Opciones* eta aukeratu *Enviar*.
4. Beste pertsonaren erantzuna, bidalitako mezuaren gainean agertuko da. Mezuari erantzuteko, sakatu *Aceptar* eta errepikatu 3. pausoa.

Mezua idaztean, *Opciones* sakatu eta alia editatzeko *Alias de chat* aukera dezakezu edo *Histórico chat* aurreko mezuak ikusteko.

## Irudidun mezuak (01–5 menua)

Aukera honekin irudidun mezuak jaso eta bidal daitezke (sare-zerbitzua Kontuan izan):

Irudia duen mezu bakoitzak zenbait testu-mezu ditu. Beraz, irudiak dituen mezu bat bidaltzea testu-mezu bat bidaltzea baino garestiagoa izan daiteke.

Irudiak dituzten mezuak telefonoaren memorian gordetzen direnez, ezingo dituzu ikusi SIM txartela beste telefono batekin erabiltzen baduzu.



**Oharra:** Sare-operatzaileak edo zerbitzu-hornitzaileak ematen badu bakarrik erabil daiteke funtzio hori. Mezuak irudiekin bidaltzeko funtzioa eskaintzen duten telefonoek bakarrik jaso eta bistara ditzakete mezuak irudiekin.

## Irudidun mezu bat jasotzean

Mezua segituan ikusteko, sakatu **Ver**. Mezua gorde egin dezakezu **Guardar** sakatuta edo ezabatu **Atrás** eta **Salir** sakatuta.

## Irudidun mezu baten aukerak

Aukeratu irudidun mezu bat eta sakatu **Ver**. Sakatu **Opciones** eta aukeratu **Reenviar** ezer aldatu gabe bidaltzeko, **Editar imagen** editatzeko, (ikus **Irudi-editorea (8–4 menua) 53**. orrialdean), edo aukeratu **Editar texto** bidali baino lehen editatzeko, edo aukeratu **Vista previa** mezu osoa ikusteko.

## Banaketa-zerrendak (01–6 menua)

Hartzaile-talde jakin bat mezuak maiz bidali behar badizkiozu, banaketa-zerrenda bat egin dezakezu eta hori erabili mezua bidali nahi diezuenean. Gehienez, 10 hartzaile dituzten 6 banaketa-zerrenda defini ditzakezu. Telefonoak testu-mezu bana bidaliko die hartzaileei.

Banaketa-zerrendak ikusi eta editatzeko, sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes* eta, ondoren, *Listas de distribución*.

Bidaltzaile bati edo batzuei mezua behar bezala iristen ez bazaie, txosten bat agertuko da. Han zenbat akats izan diren, zenbati iritsi zaion ondo eta aurkitu ez dituenen izenak jasoko dira. **Selecc.** sakatuz, kategoria bakoitza aukera dezakezu.

- Aurkitu ez diren taldekideen izenak aurkibidetik kendutako banaketa-zerrendako izenak izango dira. Zerrendatik kentzeko, sakatu *Eliminar*.
- *Volver a enviar*. Mezua jaso ez duten hartzaileei mezua berriro bidaltzeko.
- *Ver*. Mezua jaso ez duten hartzaileen zerrenda ikusteko.

### **Txantiloiak (01-7 menua)**

Mezuak idazteko erabil daitezkeen alde zuzenetik definitutako mezuak ("txantiloiak") ikusi edo edita daitezke.

### **Aurpegierak (01-8 menua)**

Aurpegierak ":-)" editatu eta gorde egin ditzakezu eta, gero beste mezuetan erabili.

## Mezuak ezabatzeko (01-9 menua)

Sakatu **Menú**, aukeratu *Mensajes* eta, ondoren, aukeratu *Borrar mensajes*.

Karpeta bateko irakurritako mezu guztiak ezabatzeko, mugitu karpeta horretara eta sakatu **Aceptar**. Ondoren, sakatu **Aceptar** pantailan *¿Borrar todos mensajes leídos de la carpeta?* testua agertzen denean.

Jada irakurritako karpeta guztietako mezu guztiak ezabatzeko, zoaz *Todos los leídos -era* eta sakatu **Aceptar**. Ondoren, sakatu **Aceptar** pantailan *¿Borrar mens. Leídos de todas las carpetas?* testua agertzen denean.

## Mezuen aukerak (01-10 menua)

Telefonoak bi mezu-aukera ditu: aukera-talde bakoitzeko bereziak edo "bateratua", eta testu-mezu guztientzat berdinak.

### 1 modua (01-10-1 menua)<sup>1</sup>

Moduak testu-mezuak eta irudidunak bidaltzeko beharrezkoak diren aukera batzuk ditu.

Multzo bakoitzak aukera hauek ditu: *Número del centro de mensajes*, *Mensajes enviados como*, *Validez de los mensajes* eta *Renombrar modo de envío*. Testu-mezuak eta irudia duten mezuak bidaltzeko, beharrezkoa da mezu-zentroko zenbakia. Zure zerbitzu-hornitzaileak emango dizu zenbaki hori.

---

1. Multzoen kopuru totala SIM txartelak onartzen duen kopuruaren araberakoa izango da.

## Komunak (01-10-2 menua)<sup>1</sup>

Azpimenu honetako aukerak irteerako testu-mezu guztiei aplika dakizkieke, aukeratutako multzoa edozein dela ere. Aukerak hauek dira: *Informes de entrega*, *Responder vía mismo centro* eta *Soporte de caracteres*.

Aukeratu *Soporte de caracteres* telefonoak testu-mezuetako Unicode karaktereak nola kudeatu definitzeko.<sup>2</sup>

*Completo* aukera hautatzen baduzu, telefonoak testu-mezu batean halaxe sartutako Unicode karaktere guztiak, "á", "í", "ó", "ú", "Á", "Í", "Ó" eta "Ú", telefono bateragarri batera bidaliko ditu, sareak onartzen badu.

*Reducido* aukera hautatzen baduzu, telefona Unicode karaktereak Unicode ez diren bere karaktere bihurtzen saiatuko da; adibidez, "ñ"ren ordez "n" edo "á"ren ordez "a". Gainera, letra xehez agertzen diren karaktere greziarrak letra larri bihurtuko ditu. Korrespondentziarik ez badago, Unicode karaktereak bidaliko dira.

## Hedapen-zerbitzua (01-11 menua)

Sare-zerbitzu honek zenbait gairekin zerikusia duten mezuak (adibidez, zirkulazioaren egoerari buruzkoak) sare bidez jasotzeko aukera ematen du. Horri buruzko informazio gehiago lortzeko, galdetu zure zerbitzu-hornitzaileari.

---


1. Menu honetako metodo laburtuko kopurua, multzo erabilgarrien araberakoa da. Hemen multzo erabilgarri bakarra dagoela suposatzen da.

2. Menu hori erabiltzeko aukera zerbitzu-hornitzailearen araberakoa da.

## Ahots-postontziko zenbakia (01-12 menua)

Nahi izanez gero, zure ahots-postontziaren zenbakiak hemen gorde eta alda ditzakezu (sare-zerbitzua).

## Zerbitzu-komandoen editorea (01-13 menua)

Zure zerbitzu-hornitzaileari zerbitzu-eskabideak bidal diezazkiokezu. Idatzi nahi dituzun karaktereak. Eduki  sakatuta, letrak eta zenbakiak txandakatzeko. Sakatu *Enviar* eskaera bidaltzeko.

## ■ Deien erregistroak. (2 menua)



Telefonoak galdutako, jasotako eta bidalitako deien telefono-zenbakiak erregistratzen ditu, bai eta zure deien gutxi gorabeherako iraupena eta kostua ere. Gainera, aurrez ordaintzeko SIM txartel baten aukerak ikusi eta doi daitezke (sare-zerbitzuak).

Telefonoak galdutako eta jasotako deiak erregistratzen ditu, baldin eta telefonoa pizturik badago, sarearen zerbitzu-eremuaren barruan badago eta sareak funtzio horiek onartzen baditu.

## Azken deien zerrenda

*Llamadas perdidas*, *Llamadas recibidas* edo *Llamadas enviadas* menuetan *Opciones* sakatzen baduzu, deia ordua ikusi, editatu, erregistratutako telefono-zenbakia ikusi eta horra deitu, aurkibidean gehitu edo zerrendatik kendu ahal izango duzu. Gainera, testu-mezua bidal dezakezu (*Enviar mensaje*).



## Deien kontagailua



**Oharra:** Zerbitzu-hornitzailearen zerbitzuengatik eta deiengatik jasotako benetako faktura aldatu egin daiteke, sarearen ezaugarrien, fakturazio-biribiltzeen, zergen eta abarren arabera.

- *Deien iraupena:* Jaso eta egin diren deien gutxi gorabeherako iraupena erakusten du. Denbora-kontagailuak zeroan ere jar daitezke, *Poner a cero los contadores de tiempo* (2-5-5 menua) aukeratuta.
- *Deien kostua:* azken deiaren edo *Mostrar costes en* funtzioan (2-7-2 menua) zehaztutako unitateetako dei guztien gutxi gorabeherako kostua erakusten du.
- *Dei-kostuen aukerak:* *Límite de coste de llamadas* aukerarekin, deien kostua muga dezakezu. Muga hori alde aurretik jarritako kontsumo-unitateak edo moneta-unitateak izan daitezke (sare-zerbitzua). *Mostrar costes en* aukerarekin, elkarrizketarenbora erabilgarria zein unitatetan agertuko den zehaztu ahal izango duzu (dei iezaiozu zerbitzu-hornitzaileari kontsumo-unitate bakoitzeko prezioei buruzko informazioa lortzeko).
- *Aurrez ordaindutakoen saldoa* aurrez ordaintzeko SIM txartela erabiltzen baduzu, txartelean nahikoa kreditua baldin badago bakarrik egin ahal izango dituzu deiak (sare-zerbitzua). Aukerak: *Mostrar información de saldo* (gelditzen diren unitateak erakutsi edo ezkutatzen ditu, pantaila zuri dagoela), *Saldo disponible* (gelditzen diren unitateak), *Costes del último evento*, *Estado de recarga*.



**Oharra:** Karga-unitate edo moneta-unitate gehiago geratzen ez direnean, telefonoan programatutako larrialdi-zenbakira bakarrik dei daiteke (adibidez, 112 edo beste larrialdi-zenbaki ofizialen bat).

## ■ Moduak (3. menua)

Gertakizunen eta ingurunearen arabera, dei-seinaleak pertsonalizatu ahal izango dituzu. Lehenengo, pertsonalizatu aukera-multzoak, moduak eta, ondoren, erabili nahi duzun modua aktibatu besterik ez duzu egin behar.



### Modu bat aktibatzea eta horren aukerak aldatzea

Modos menuan, aukeratu nahi duzun modua eta, ondoren, sakatu *Activar*.

Hautatutako moduko aukerak aldatzeko, aukeratu *Personalizar*. Aukeratu:

*Señal de llamada, Volumen señal de llamada, Aviso de llamadas entrantes, Tono de aviso para mensajes, Sonido del teclado, Tonos de aviso, Aviso por vibración, Aviso de iluminación rítmica, Salvapantallas* edo *Renombrar* (ez dago eskura *Normal* moduan). Hautatu nahi duzun aukera eta sakatu *Aceptar*.

Horrez gain, orain aukeratuta daukazu moduaren aukerak *Opciones de tonos* menuan (4-1 menua) alda ditzakezu. Ikus 42. orrialdea.



**Iradokizuna:** Pantaila zuri dagoela edo hitz egiten ari zaren bitartean, modu bat azkar aktibatzeko: Sakatu azkar-azkar **ⓘ** tekla, joan nahi duzun modura eta sakatu *Aceptar*.

## ■ Aukerak (4. menua)

Menu honetan telefonoaren zenbait aukera egoki dezakezu. Menuen aukeren hasierako balioak berriz ezartzeko, aukeratu *Restablecer los valores iniciales*.



## Tonuen aukerak (4-1 menua)

Aukeratutako moduaren aukerak alda daitezke: *Señal de llamada*, *Volumen señal de llamada*, *Aviso de llamadas entrantes*, *Tono de aviso para mensajes*, *Sonido del teclado*, *Tonos de aviso*, *Aviso por vibración*, *Aviso de iluminación rítmica* eta *Salvapantallas*.

- *Tono de aviso para mensajes* testu-mezua jasotzean entzuten den soinua finkatzen du.




**Iradokizuna:** *Señal llamada* aukeratuz gero, mezuentzako abisu-tonu gisa, dei-seinale bat aukeratu ahal izango duzu.

- *Aviso de iluminación rítmica*: telefono-argiak konfiguratzeko, mezu bat edo dei bat sartzen den bakoitzean, mezuentzako oraingo abisu-tonuaren edo sartzen diren deien abisu-tonuaren erritmoari jarraituz dir-dir egin dezan.





## Deiak doitzea (4-2 menua)

- *Desvío de llamadas*. Jasotako deiak ahots-postontzira edo beste telefono-zenbaki batera pasatzeko (sare-zerbitzua).

Hautatu desbideratzeko nahi duzun aukera; adibidez, aukeratu *Desvío si ocupado* zure zenbakia okupatuta dagoenean edo jasotako dei bat onartzen ez denean deiak desbideratzeko.

Desbideratzeko aukera bat baino gehiago egon daitezke aktibatuta aldi berean. *Desvío de todas las llamadas de voz* aukera aktibatuta badago,  adierazlea agertuko da pantaila zuri dagoela.

Aktibatu (*Activar*) edo desaktibatu (*Anular*) hautatutako aukera; egiaztatu aukera aktibatu egiten dela *Verific. Estado* aukeratzean edo, bestela, zehaztu atzerapentarte bat bidalketa batzuentzat *Fijar retardo* aukeran (ez dago erabilgarri desbideratze-aukera guztietan).

- *Rellamada automática*: dei batek huts egiten badu, gehienez beste hamar egiteko moduan telefonoa konfiguratzeko aukera.
- *Marcación rápida*: funtzio hau aktibatuta badago, markaketa bizkorreko teklei –  (e)tik  (e)ra artekoak– esleitutako telefono-zenbakiak eta izenak, dagokien tekla sakatuta marka daitezke.
- *Servicio de llamada en espera*: sare-zerbitzu hau aktibatuta badago, hitz egiten ari zaren bitartean beste dei bat baldin baduzu, sareak abisatu egingo dizu. Sakatu  zain dagoen deiari erantzuteko. Lehen deia zain geratuko da. Sakatu  aktibo dagoen deia amaitzeko.
- *Envío de ID del llamante*: Deitzen ari den pertsonari zure telefono-zenbakia erakusteko (*Activar*) edo ezkutatzeko (*Desactivar*) moduan telefonoa konfiguratzeko aukera ematen du (sare-zerbitzua). *Predeterm.* Aukeratzean, zerbitzu-hornitzailearekin adostutako balioa erabiltzen da.
- *Línea para llamadas salientes*: Sare-zerbitzu honen bidez, deiak egiteko 1 edo 2 lineak aukeratu ahal izango dituzu, edo linea-aukera baztertu, baldin eta SIM txartelak hori onartzen badu.

Sarrerako deiei erantzun dakieke aukeratzen den linea zein den kontuan izan gabe. Dena den, 2. linea aukeratzeko edo deiak egiteko, sare-zerbitzu horretan abonatu egin behar da. 2. linea aukeratzen bada, "2" agertuko da pantaila zuri dagoela.

## Telefonoaren aukerak (4-3 menua)

*Idioma:* pantailako testuak zein hizkuntzatan ateratzea nahi diren aukeratzeko.

*Presentación info de célula:* MCN teknologian (Micro Cellular Network) oinarritutako sare zelularrean noiz erabiliko den adierazteko moduan telefonoa aukeratzeko (sare-zerbitzua). Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

*Saludo inicial:* telefonoa piztutakoan, pantailan tarte labur batez agertuko den agurmezua idazteko aukera ematen du.

*Selección de red:* zure eremuan erabilgarri dagoen sare zelularra automatikoki aukeratzeko moduan, edo sarea eskuz aukeratzeko moduan, telefonoa konfiguratzeko funtzioa da. Aukeratutako sareak desplazamendu-akordioa izan behar du zure sarearekin.

*Confirmar accs. de servicio SIM:* SIM txartelaren zerbitzuak erabiltzean, berrespen-mezuak erakutsi edo ezkutatzeko moduan telefonoa konfiguratzeko aukera da (ikus Servicios SIM (9. menua) 55. orrialdean).

## **Data eta ordua doitzea (4-4 menua)**

### **Erlojua (4-4-1 menua)**

Pantaila zuri dagoela ordua erakusteko, orduak doitzeko eta 12 edo 24 orduko formatua aukeratzeko moduan telefonoa konfiguratzeko. Telefonoari bateria kenduz gero, litekeena da ordua berriro jarri behar izatea.

### **Deiak doitzea (4-4-2 menua)**

Aukera hau eguna ondo jartzeko da. Telefonoari bateria kenduz gero, litekeena da eguna berriro jarri behar izatea.

### **Data eta orduaren eguneratze automatikoa (4-4-3 menua)**

Sare-zerbitzu honek data eta ordua ordu-eremuaren arabera egokitzen ditu.

### **Teklatua blokeatzeko aukerak (4-5 menua)**

Aurrez zehaztutako denbora-tartea igaro ondoren telefonoaren teklatua automatikoki blokeatzeko konfiguratu dezakezu *Bloqueo auto del teclado* aukera erabilia, edo telefonoaren segurtasun-kodearen bitartez, eskuz blokeatu dezakezu *Código bloqueo del teclado* aukerarekin.

### **Teklatuaren blokeoa automatikoki aktibatzeko:**

Pantailan *Bloqueo auto del teclado* agertzen denean, sakatu *Selecc.* eta *Activar*. *Establezca retardo*: mezua agertzen denean, sar ezazu denbora minutu eta segundotan.



**Oharra:** Teklatua babesteko aukera aktibatuta dagoenean, telefonoan programatutako larrialdi-zenbakietara deidaiteke (adibidez, 112 zenbakira edo beste larrialdi-zenbaki ofizial batera).

### Teklatua blokeatzeko kodea aktibatzeko:

Hautatu *Código bloqueo del teclado*, sartu segurtasun-kodea eta aukeratu *Activar*.

Teklatua blokeatzeko kodea aktibatu ondoren, teklatua desblokeatzen saiatzen zaren bakoitzean segurtasun-kodea sartzeko eskatuko dizu.

### Osagarrien aukerak (4-6 menua)

Opciones de accesorios menua telefonoa zenbait osagarriekin, hala nola esku libreko kit eramangarriekin edo begizta induktiboko unitate eramangarriekin konektatuta dagoenean edo konektatuta egon denean bakarrik agertuko da.

Sakatu *Menú*, hautatu *Opciones* eta, ondoren, *Opciones de accesorios*. Aukeratu *ML portátil*, *Manos libres* edo *Adap. audifono*.

- Osagarria konektatuta dagoenean telefonoak erabiliko duen modua hautatzeko, aukeratu *Modo predeterminado*.
- Aukeratu *Respuesta automática*, sartzen diren deiei telefonoak bost segundoan automatikoki erantzuteko. *Aviso de llamadas entrantes* aukera *Un "bip"* edo *Desactivar* gisa definituta badago, automatikoki erantzuteko aukera ez da aktibatuko.

- Aukeratu *Iluminación* eta, ondoren, *Activar* argia etengabe piztuta izateko. Aukeratu *Automática* tekla bat sakatu ondoren argia 15 segundoz piztuta edukitzeko. *Manos libres* aukera hautatuta badago bakarrik izango da eskura *Iluminación* aukera.

## Segurtasun–aukerak (4–7 menua)



**Oharra:** Deiak mugatzen dituzten segurtasun–ezaugarriak aktibatuta daudenean (deiak blokeatzea, erabiltzaile–talde itxia eta markaketa finkoa), sare batzuetan larrialdi–zenbaki jakin batzuetarako deiak egin daitezke (adibidez, 112 edo beste larrialdi–zenbaki ofizial batzuetara).

- *Petición del código PIN:* telefonoa piztean SIM txartelaren PIN kodea eska dezan telefonoa konfiguratzeko aukera ematen du. Zenbait SIM txartelek ez dute funtzio hau desaktibatzeke aukerarik ematen.
- *Servicio de restricción de llamadas:* Sare–zerbitzu hau erabilia, zure telefonoarekin deiak egitea eta jasotzea murriz dezakezu. Hautatu nahi duzun murrizketa–aukera eta aktibatu (*Activar*), desaktibatu (*Anular*) edo zerbitzu bat aktibatuta dagoela egiazta ezazu (*Verific. estado*).
- *Marcación fija:* deiak aukeratutako telefono–zenbakietara bakarrik egiteko aukera da (sare–zerbitzua).
- *Grupo cerrado de usuarios:* sare–zerbitzu hau zuri deitzeko edo zuk deiak egiteko aukera duten pertsona–taldea zehazteko da.
- *Nivel de seguridad:* Telefonoan SIM txartel berria sartutakoan *Teléfono*, edo telefonoaren barneko aurkibidea *Memoria* aukeratutakoan, segurtasun–kodea eskatzeko moduan telefonoa konfiguratzeko aukera ematen du.



Gogoan izan segurtasun-maila aldatzen baduzu, dei eginberrien zerrenda guztiak ezabatuko direla, galdutako , jasotako eta egindako deiak barne.

- *Cambio de los códigos de acceso*: Segurtasun-kodea, PIN, PIN2 edo murrizteko pasahitza aldatzeko aukera ematen du. Kode horiek 0 eta 9 bitarteko zenbakiak bakarrik izan ditzakete.

Ez erabili larrialdi-zenbakien antzekoak (esaterako 112 zenbakiaren antzekoak) diren sarbide-kodeak, konturatu gabe larrialdi-zenbakia marka ez dezazun.

## Hasierako balioak berriz ezarri (4-8 menua)

Menuen aukeren hasierako balioak berriz jartzeko aukera ematen du. Sakatu **Menú**, hautatu *Opciones* eta, ondoren, *Restablecer los valores iniciales*. Sartu segurtasun-kodea eta sakatu **Aceptar**. Telefono-aurkibidean gordetako izenak eta telefono-zenbakiak ez dira ezabatuko.

## ■ Iratzargailua (5 menua)

Aukera honekin alarma behin edo, nahi duzun orduan, behin baino gehiagotan, adibidez, lanegun guztietan, jotzeko moduan jar daiteke.



Alarmak jotakoan, **Detener** sakatuta gelditu daiteke. **Repetir** sakatuz gero, alarma gelditu egingo da eta bost minutu pasatutakoan berriz joko du. Alarmak minutu batez jotzen badu, gelditu egingo da eta bost minutu pasatutakoan berriz joko du.

Telefonoa itzalita dagoela programaturiko alarma-ordua iristen bada, telefonoa automatikoki piztuko da eta alarma-tonua jotzen hasiko da. Detener sakatzen baduzu, telefonoa deiak egiteko aktibatu nahi ote duzun galdetuko dizu telefonoak. Sakatu No telefonoa itzaltzeko, edo Sí deiak egin eta jasotzeko.



**Oharra:** Ez sakatu Sí telefono mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskurik eragin dezakeen lekuetan.

## ■ Abisu-oharrak (6 menua)

Memoriaren funtzio honek testu-ohar laburrak alarma batez gordetzeko aukera ematen du. Alarma aktibatu egiten da aldez aurretik jarritako data eta ordua iritsitakoan.



**Oharra:** Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

Aukera hauek daude: *Añadir nueva*, *Ver todas*, *Editar*, *Enviar* edo *Borrar* ohar berri bat sartzeko, dauden oharrak ikusteko eta oharrak ezabatzeko, banan-banan edo denak batera.

Abisu-oharraren ordua iritsitakoan, **Aceptar** sakatuta alarma gelditu daiteke. **Repetir** sakatuz gero, telefonoaren alarmak berriz joko du 10 bat minutu pasatutakoan.

## ■ Jokoak (7. menua)

Telefonoak zenbait jokoz gozatzeko aukera ematen du: Joko bakoitzak laguntza-testu labur bat du.





**Oharra:** Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.

### Jokoen ohiko aukerak doitzea

Aukeratu *Opciones*. Soinuak, argiak eta bibrazioak zehatz daitezke (*Vibración*). Kontuan izan *Tonos de aviso* (4-1-6 menua) desaktibatuta dagoenean litekeena dela soinurik ez egitea, nahiz eta *Sonidos de los juegos* aktibatuta egon. Gainera, *Aviso por vibración* (4-1-7 menua) aukera desaktibatuta dagoenean, telefonoak ez du bibratuko, nahiz eta *Vibración* aukera aktibatuta egon.

### ■ Gehigarriak (8. menua)



**Oharra:** Funtzio hau erabiltzeko, telefonoak piztuta egon behar du. Ez piztu telefonoa mugikorrek erabiltzea debekatuta dagoen lekuetan edo interferentziak sor ditzakeen edo arriskuren bat ekar dezakeen lekuetan.







### Kalkulagailua (8-1 menua)

Telefonoak kalkulagailua du, eta gutxi gorabeherako moneta-bihurketak egiteko ere erabil daiteke.


Kalkulagailu honek zehaztasun mugatua du, eta biribiltzerakoan akatsak egin ditzake, bereziki zatiketa luzeetan.

**Menu honetan sartzeko:** Sakatu *Menú* pantaila zuri dagoela, eta aukeratu *Extras* eta *Calculadora*.

## Kalkuluak egitea

-  -  teklek digitu bat sartzen dute.  teklak hamartarren koma sartzen du. Sakatu **Borrar** azken digitua ezabatzeko. Ikurra aldatzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Cambiar signo*.
- Sakatu  behin "+" ikurra sartzeko, bitan "-" sartzeko, hirutan "\*" sartzeko eta lautan "/" sartzeko.
- Emaitza lortzeko, sakatu **Opciones** eta aukeratu *Resultado*. Pantaila ezabatu eta beste kalkulu bat egiteko, eduki sakatuta **Borrar**.

## Moneta-trukea egitea

Kanbio-tasa gordetzeko: Sakatu **Opciones**, aukeratu *Tipo de cambio* eta, ondoren, *De moneda extranjera a nacional* edo *De moneda nacional a extranjera*, idatzi zenbatekoa (sakatu  hamartarren koma sartzeko) eta sakatu **Aceptar**.

Bihurketa egiteko: Idatzi bihurtu nahi duzun moneta-zenbatekoa, sakatu **Opciones** eta aukeratu *A nacional* edo *A extranjera*.

## Kronometroa (8-2 menua)



Menu honetan sartzeko: Sakatu **Menú** pantaila zuri dagoela, eta aukeratu *Extras* eta *Cronómetro*.

## Zatitutako denboren edo faseen erregistroa

Aukeratu *Tiempo dividido* edo *Tiempo de fase*, eta sakatu **Iniciar**. Sakatu **Dividido** denbora-zatia erregistratzeko, **Fase** fase baten denbora erregistratzeko edo **Detener** kronometratzea gelditzeko. Denbora guztiaren azpian dauden denbora erregistratu batetik bestera joan daiteke.

Kronometratzea gelditutakoan, sakatu **Opciones** *Iniciar* (denbora-zatiak bakarrik), *Guardar* edo *Poner a cero* egiteko. *Iniciar* aukeratzten baduzu, kronometratzen jarraituko du aldez aurretik neurtutako ekintzatik abiatuz. *Poner a cero* aukeratu gero, denbora-zatiak eta fasekoak berrezarriko dira.

### Kronometroa bigarren planoan konfiguratzeko

Denbora igaro ahala, sakatu . Kronometroa aktibatuta badago,  agertuko da pantaila zuri dagoenean. Denbora ikusteko, joan *Cronómetro* menura eta aukeratu *Continuar*.

Kronometroa erabiltzean, bateria kontsumitu egiten da. Kontuz ibili, eta ez utzi nahi gabe bigarren planoan kronometratzen.

### Atzerako kontaktaren tenporizadorea (8-3 menua)

Alarmak denboraldi bat pasatutakoan jotzeko moduan konfiguratzeko aukera ematen du.

Sakatu *Menú*, aukeratu *Extras* eta *Temporizador de cuenta atrás*. Sartu alarma-ordua eta sakatu *Iniciar*. Horrez gain, pasatutako denbora aldatu eta tenporizadorea gelditu ahal izango duzu.

Tenporizadorea aktibatuta badago,  agertuko da pantaila zuri dagoenean.

Jarritako ordua iritsitakoan, telefonoak soinu bat egingo du eta testu erlazionatua keinuka hasiko da. Sakatu edozein tekla alarma gelditzeko.



## Irudien editorea (8-4 menua)

Irudi berriak egin eta lehendik dauden irudiak aldatu eta telefonoan gordetzeko aukera ematen du.

Pantaila zuri dagoela sakatu **Menú**, aukeratu *Extras* eta, ondoren, *Editor de imágenes*. Aukeratu *Crear nueva* irudi berria egiteko, edo *Edit. existente* irudi bat aldatzeko. Gainera, *Mensajes con imágenes* menuan irudiak edita daitezke, aukera-zerrendako *Editar imagen* aukeran sartuta.









Hautatu irudiaren formatua: *Mensaje ímág.* edo *Clip-art*. Marraztu irudia.

### Irudiak marraztea

**Luma:** Marrazteko, kurtsoarearekin batera mugituko den luma erabil dezakezu. Lumak kontrolatzen du marraztu nahi den (*Pluma activada*, ) ala ez (*Pluma desactiv.*, ). Lerro bat marrazteko, aukeratu *Pluma activada*; marrazteari uzteko, aukeratu *Pluma desactiv.* *Pluma desactiv.* aukerarekin, kurtsoarea irudian zehar mugituko duzu.

Luma azkar aktibatu eta desaktibatuzeko, sakatu  edo .

**Kurtsoarea:** Kurtsoarea zenbaki-tekla hauen bidez mugi dezakezu:


 eta  teklek kurtsoarea gora eta behera eramaten dute;  eta  teklek, ezkerrera eta eskuinera. , ,  eta  teklak lau noranzko diagonalei dagozkie.

Kurtsoarearen erdiguneak azpian dagoen pixelaren benetako kolorea erakusten du.


 tekla sakatzean, pixelaren kolorea aldatuko da, zuritik beltzera edo alderantziz.






## Marrazteko aukerak



Sakatu **Opciones** marrazten ari zaren bitartean, lumaren egoeraz gain, aukera hauek ikusteko: *Color*, *Insertar*, *Rellenar*, *Borrar todo*, *Invertir colores*, *Guardar como*, *Guardar*, *Salir* eta *Deshacer*. Aukeratu:


- *Color*: Marrazten ari zaren lerroaren kolorea aldatzeko. Erabilgarri dauden aukerak *Negro*, *Blanco* edo *Punteado* dira.  sakatuta kolorea azkar aldatu ahal izango duzu.
- *Insertar*: Irudian lerroa, angeluzuzena, zirkulua, testua edo clip-art-a txertatzeko. Hautatu nahi duzun aukera eta sakatu *Insertar*. Erabili zenbaki-teklak lerro, laukizuzen edo zirkulu bat marrazteko.
- *Rellenar*: Gune itxia, orain hautatutako koloreaz betetzeko. Mugitu kurtsorea nahi duzun guneraino eta sakatu *Rellenar*.
- *Invertir colores*: Irudiko pixel beltzak zuri bihurtzeko, eta alderantziz.

## Konpositorea (8-5 menua)

Zeure dei-seinaleak sortzeko aukera ematen du. Aukeratu editatu nahi duzun soinua eta tekleatu notak. Adibidez, sakatu  f nota sartzeko.

 teklak laburtu (-) eta  teklak luzatu (+) egingo du notaren edo isilunearen iraupena.  isilunea txertatzen du.  zortziduna definitzen du.  sostenitadun nota sortzen du (e eta b notentzat ez dago eskura).

 eta  teklek kurtsorea ezkerretik eskuinerantz desplazatzen dute. Sakatu *Borrar* kurtsorearen ezkerreko nota edo isilunea ezabatzeko.



## ■ SIM zerbitzuak (9. menua)

SIM txartelak zerbitzu gehigarriak eskaintzen baditu bakarrik agertuko da. Menuaren izena eta edukia eskura dauden zerbitzuen menpe daude.



**Oharra:** SIM zerbitzuen erabilgarritasunari, tarifei eta informazioari buruzko zehaztasun gehiago izateko, jarri harremanetan zure SIM txartelaren banatzailearekin: sare-operadorea, zerbitzu-hornitzailea edo beste banatzailearen bat.



## 6. Bateriari buruzko informazioa

---

### ■ Kargatzea eta deskargatzea

Telefonoak elikadura elektrikoa jasotzen du, berriz kargatzen den bateria baten bidez.

Kontuan hartu bateria baten erabateko errendimendua bi edo hiru aldiz erabat kargatu eta deskargatu ondoren soilik lortzen dela!

Bateria sarritan karga eta deskarga daiteke, baina denborarekin gastatu egingo da. Funtzionamendu-denbora (elkarrizketa eta deiak jasotzeko/egiteko egoera) ohikoa baino askoz ere laburragoa denean, bateria berri bat erosi beharko duzu.

Telefonoaren fabrikatzaileak soilik onetsitako bateria erabil ezazu eta fabrikatzaileak onetsitako kargagailuekin soilik kargatu berriz bateria. Kargagailua erabiltzen ari ez zarenean, deskonekta ezazu. Ez utzi bateria kargagailu bati konektatuta astebete baino gehiago, gainkargak haren iraupena labur baitezake. Erabiltzen ez den eta erabat kargaturik dagoen bateria bat bere kasa deskargatuko da denboraldi baten buruan.

Muturreko temperaturek bateriaren karga-ahalmenari eragin diezaiokete.

Erabili bateria diseinatu zuteneko helbururako soilik.

Ez erabili inoiz kargagailua edo bateria hondatuta badaude.

Ez egin zirkuitulaburrik bateriari. Ustekabeko zirkuitulaburra sor daiteke, esate baterako, sakelan edo zorroan metalezko objektu baten ondoan (txapon bat, klip bat edo bolaluma bat) ordezkotako bateria badaramazu, horrek bateriaren + eta - terminalen (bateriaren atzealdean dauden metalezko bandak) zuzeneko konexioa eragiten baitu. Terminalen zirkuitulaburrak bateria edo horri konektaturiko objektua honda ditzake.

Bateria leku hotzetan edo beroetan uzten baduzu, esate baterako, udan edo neguan erabat itxita dagoen ibilgailuan, bateriaren ahalmena eta iraupena murriztu egingo dira. Saia zaitez bateria beti 15 °C eta 25 °C artean izaten. Bateria hotzegia edo beroegia duen telefonoak baliteke denboraldi batean ongi ez funtzionatzea, baita erabat kargatuta badago ere. Izozte-puntuaren azpitik dauden tenperaturek bereziki mugatzen dute bateriaren errendimendua.

Ez bota sutara bateriarik!

Bota bateriak tokian tokiko arauen arabera (adibidez, birziklatu). Ez bota bateriak zakarrontzira.

## Zainketa eta mantentze-lana

---

Telefono hau diseinu eta fabrikazio bikaineko produktua da eta arduraz zaindu behar da. Ondoren bilduriko iradokizunak lagungarri izango zaizkizu berme-baldintzak bete eta produktu honetaz urteetan gozatzeko.

- Ez utzi telefonoa eta haren pieza osagarriak haurren eskueran.
- Ez busti telefonoa. Euriak, hezetasunak eta likidoek zirkuitu elektronikoak oxida ditzaketen mineralak dituzte.
- Ez erabili eta ez gorde telefonoa leku zikinetan edo hautsez betetakoetan. Pieza mugikorrek hondatu egin daitezke.
- Ez gorde telefonoa leku beroetan. Temperatura altuek gailu elektronikoaren iraupena gutxitu dezakete, bateria kalte dezakete eta zenbait plastiko deformatu edo desegin egin ditzakete.
- Ez gorde telefonoa leku hotzetan. Telefonoak ohiko tenperatura berreskuratzen duenean, hezetasuna sor daiteke barrualdean, eta horrek zirkuitu elektronikoaren plakak kalte ditzake.
- Ez saiatu telefonoa irekitzen. Telefonoa espezializatu gabeko pertsonak manipulatu badute, kalteak eragin diezazkiokete.
- Ez utzi lurrera erortzen, ez kolperik eman eta ez mugitu zakarki telefonoa. Zakarki manipulatu baduzu, barne-zirkuituetako plakak hautsi egin daitezke.
- Ez erabili produktu kimiko kaltegarriarik, disolbagarriarik edo garbigarri sendorik telefonoa garbitzeko.
- Ez pintatu telefonoa. Pinturak pieza mugikorrek oztopa ditzake eta behar bezala funtzionatzea galaraz dezake.

- Erabili telefonoak berez daukan antena edo onetsitako ordezko antena soilik. Baimenik gabeko antenek, aldaketek eta erantsitako elementuek kaltea eragin diezaiokete telefonoari eta irrati-aparatuei buruzko araudia urra dezakete.

Gomendio horiek guztiak berdin-berdin aplikatzen zaizkie telefonoari, bateriari, kargagailuari eta gainerako osagarriei. Horietakoren bat behar bezala ez badabil, eraman hurbilen duzun baimenduriko banatzaileari. Bertako langileek arazoa konpontzen lagunduko dizute, eta, hala behar izanez gero, zerbitzu teknikoa eskainiko dizute.

# Segurtasunari buruzko informazio garrantzitsua

---

## ■ Errepideko segurtasuna

Ez erabili telefono mugikorra gidatzen ari zaren bitartean. Jarri beti telefonoa bere euskarrian, ez utzi kopilotoaren eserlekuan edo talka eginda edo bat-batean geldituta aska daitekeen lekuan.

Gogoratu: Errepidean kontuz ibiltzea da funtsezkoena!

## ■ Ingurune operatiboa

Errespeta ezazu zu zauden tokian indarrean dagoen araudi berezia eta itzali telefonoa erabiltzea debekatuta dagoenean, interferentziak eragin ditzakeenean edo arriskutsua izan daitekeenean. Erabili telefonoa funtzionamenduko posizio normaletan soilik.

Zenbait osagarri magnetikoak dira. Telefonoak metalezko materialak erakar ditzake, eta audiofonia duten pertsonak ez lukete telefonoa belarrira hurbildu behar audiofonia jarrita badute. Jarri beti telefonoa bere euskarrian, audifonoak metalezko piezak erakar baititzake. Ez jarri kreditu-txartelik, ez bitarteko magnetikoak ere telefonotik gertu, horietan gordetako informazioa ezaba baitaiteke.

## ■ Gailu elektronikoak

Ekipo elektroniko moderno gehienek irrati-maiztasuneko (IM) seinaleen aurkako babesa dute. Hala ere, baliteke ekipo elektroniko jakin batzuk zure telefono mugikorraren IM seinaleetatik babesturik ez egotea.

## **Taupada-markagailua**

Taupada-markagailuen fabrikatzaileek telefono mugikorraren eta taupada-markagailuaren artean gutxienez 20 cm-ko distantzia izateko gomendatzen dute, taupada-markagailuarekin interferentzia posibleak galarazteko. Gomendio horiek ikerketa independenteen eta telefonia mugikorreko ikerketa teknologikoen ondorioak dira. Taupada-markagailua duten pertsonak:

- Telefonoa aktibatuta dagoenean, taupada-markagailutik gutxienez 20 cm-ra eduki behar dute;
- Telefonoa ez dute eraman behar bularraren parean dagoen sakelara.
- Taupada-markagailuaren aurkako aldeko belarrian erabili behar dute interferentzia-arriskua ahal bezainbeste murrizteko.
- Interferentziaren bat gertatzen ari den susmorik baduzu, itzali berehala telefonoa.

## **Entzuteko aparatuen**

Zenbait telefono mugikor digitalek interferentziak eragin ditzakete audiofono jakin batzuekin. Horrelako interferentziak gertatzen badira, jarri harremanetan zure zerbitzu-hornitzailearekin.

## **Beste zenbait tresna mediko**

Irrati-transmisioko ekipoek, telefono zelularrak barne, interferentziak eragin ditzakete behar bezala babestuta ez dauden tresna medikoen funtzionamenduan. Kontsultatu mediku batekin edo tresna medikoaren fabrikatzailearekin, IF kanpo-seinaleen aurka behar bezala babestuta dauden jakiteko edo edozein zalantza argitzeko. Itzali telefonoa hala adierazten dizuten erietxeetako leku berezietan. Litekeena da ospitale eta erietxeetan IF kanpo-seinaleekiko sentikorrak diren ekipoak erabiltzea.

## **Ibilgailuak**

Behar bezala instalatuta edo babestuta ez dauden motordun ibilgailuetako sistema elektronikoak erasan ditzakete IM seinaleek (esate baterako, injeziozko sistema elektronikoak, blokeo aurkako balazta-sistema elektronikoak (ABS), abiadura kontrolatzeko sistema elektronikoak, airbag-sistemak). Egiaztatu alderdi horiek zure ibilgailuaren fabrikatzailearekin edo haren ordezkariarekin. Geroago zure ibilgailuan gaineraturiko ekipoei buruzko kontsulta ere egin diezaiokezu fabrikatzaileari.

## **Informazio-oharrak**

Deskonektatu telefonoak informazio-oharrak hala adierazten dizuten lekuetan.

## **■ Leherketak gerta daitezkeen inguruak**

Deskonektatu telefonoa leherketak gerta daitezkeen eremuetan, eta bete seinale eta argibide guztiak. Eremu horietako txinpartek eztandak edo suteak eragin ditzakete, kalte pertsonalak eragin ditzaketenak, baita heriotza ere.

Erabiltzaileei jakinarazten zaie telefonoa itzali egin behar dutela gasolina-zerbitzuguneetan (zerbitzuguneak) eta irrati-ekipoak erabiltzeko mugak errespetatu egin behar dituztela erregai-deposituetan (erregaia biltegiratu eta banatzeko eremuak), planta kimikoetan eta leherketak egiten diren lekuetan.

Leherketak gerta daitezkeen guneak argi eta garbi adierazita daude sarritan, baina ez beti. Horietako batzuk hauek dira: itsasontzietako kubiartak; produktu kimikoak biltegiratu eta garraiatzeko instalazioak; likidotutako petrolio-gasa erabiltzen duten ibilgailuak (adibidez, propanoa edo butanoa); airean partikula edo elementu kimikoak (adibidez, pikorra, hautsa edo metalezko partikulak) dauden eremuak, eta normalean ibilgailuaren motorra itzaltzeko eskatzen diren eremuak.

## ■ Ibilgailuak

Langile trebatuek soilik konpon dezakete telefonoa edo instala dezakete ibilgailu batean. Behar bezala instalatu edo konpondu ez bada, arriskutsua gerta daiteke eta unitateari aplikatzen zaion bermea baliogabetu.

Maiz egiaztatu zure ibilgailuko telefono mugikorraren ekipoa osoa behar bezala muntatuta dagoela eta behar bezala dabilela.

Ez biltegiratu eta garraiatu likido sukoiarik, gasik, eta material lehegarririk telefonoaren eta haren pieza edo osagarrien konpartimendu berean.

Airbag-a duen ibilgailua baduzu, gogoratu indar handiz puzten dela. Ez jarri objekturik, ez instalaturiko ekipoa eta telefono mugikorraren pieza eramankorrak, airbag-aren gainean edo hori zabalduko den gunearen gainean. Telefonía mugikorreko ekipoa ibilgailuaren barruan behar bezala instalatuta ez badago eta airbag-a zabaldu egiten bada, zauri larriak eragin ditzake.

Debekatuta dago telefonoa hegaldietan erabiltzea. Itzali telefonoa hegazkinean sartu aurretik. Telefono mugikorrek hegazkin batean erabiltzea arriskutsua izan daiteke hegazkinaren beraren funtzionamenduarentzat, eta telefono mugikorraren sarearen konexioa eten egin dezake; gainera, legez kontrakoa da.

Argibide hauek ez betetzeak araua hautsi duen pertsonari telefono-zerbitzua etetea edo ukatzea eragin dezake; gainera, legezko bidea ireki daiteke edo bi gauzak batera gerta daitezke.

## ■ Larrialdi-deiak





### Garrantzitsua:

Telefono hau, telefono mugikor guztiak bezala, irrati-seinaleekin, haririk gabeko eta lurreko sareekin eta erabiltzaileak programatutako funtzioekin dabil. Horregatik, ezin daiteke bermatu konexioek egoera guztietan funtzionatuko dutenik. Horrenbestez, ez dute inoiz telefono mugikor bakar baten mende egon behar komunikazio garrantzitsuetarako (esate baterako, larrialdi medikoak).



Agian ezin izango dira larrialdi-deiak egin telefono mugikorren sare guztietan edo sare-zerbitzu edo telefonoaren funtzio jakinak erabiltzen direnean. Kontsultatu tokian tokiko zerbitzu-hornitzaileekin.

### Larrialdi-dei bat egiteko:

1. Telefonoa piztuta ez badago, piztu. Egiaztatu seinale-intentsitatea egokia dela. Zenbait sarek telefonoan baliozko SIM txartel bat jartzeko eska dezakete.
2. Sakatu  behar adina alditan (adibidez, dei bat amaitzeko, menuetik ateratzeko, etab.) pantailan ezabatu eta deitzeko.
3. Tekleatu zu zauden tokiko larrialdi-zenbakia (adibidez, 112 edo beste edozein larrialdi-zenbaki ofizial). Larrialdi-zenbakiak aldatu egin daitezke herri batetik bestera.
4. Sakatu  tekla.

Zenbait funtzio aktibatuta badaude, agian desaktibatu egin beharko dituzu larrialdi-dei bat egin ahal izateko. Kontsultatu gida hau eta tokian tokiko zerbitzu zelularreko zure hornitzailearekin.

Larrialdi-dei bat egitean, ez ahaztu beharrezkoa den informazio guztia ahalik eta xeheen zehazteaz. Gogoratu istripuaren lekuan telefono mugikorra izan daitekeela komunikazio-bitarteko bakarra: ez eten komunikazioa hala adierazten dizuten arte.

## ■ Absortzio Espezifikoaren Tasaren (SAR) ziurtagiria.

### TELEFONO-MODELO HONEK IRRATI-UHINEK PERTSONENGAN DUTEN ERAGINAREN ESKAKIZUNAK BETETZEN DITU

Zure telefono mugikorra irrati-transmisorea eta irrati-hargailua da. Europako Batasuneko Batzordeak gomendaturiko irrati-maiztasunaren (IM) energiarekiko esposizio-mugak ez gainditzeko diseinatuta eta fabrikatuta dago. Muga horiek arteztarau zehatz batzuen zati dira, eta herritarrentzat baimenduriko IMren energia-mailak ezartzen dituzte. Erakunde zientifiko independenteek garatu dituzte arteztarau horiek, azterlan zientifikoek aldizkako ebaluazio zehatzaren bidez. Mugek segurtasun-tarte handia dute, pertsona guztien segurtasuna bermatzeko, pertsonen duten adina edo osasun-egoera kontuan hartu gabe.

Telefono mugikorretarako esposizio estandarreko indizea Absortzio Espezifikoaren Tasa edo SAR (Specific Absortion Rate) izeneko unitatearekin neurtzen da. Europako Batasuneko Batzordeak gomendatutako muga-tasa  $2,0 \text{ W/kg}^*$  da. SAR probak funtzionamendu estandarreko posizioetan eta telefonoak probatutako maiztasun-banda guztietan ziurtatuko potentzia-maila maximoan transmititzen duenean egiten dira. SAR ziurtatutako potentzia-maila handienera zehazten den arren, telefonoaren funtzionamenduko tasa erreala gehienezko balioaren azpitik egon ohi da nabarmen. Telefonoa hainbat potentzia-mailatan funtzionatzeko eta sarera konektatzeko behar den potentzia bakarrik erabiltzeko diseinatuta dagoelako gertatzen da hori. Normalean, telefonia mugikorreko antena batetik zenbat eta hurbilago egon, orduan eta txikiagoa da energia-emisioa.

Modelo bat publikoarentzat salgai egon aurretik, telekomunikazioetako ekipo terminaleri buruzko Europako arteztaraua betetzen duela erakutsi behar du. Arteztarau horretako funtsezko baldintzetako bat da osasunaren babesa eta erabiltzailearen eta beste edozeinen segurtasuna. Telefono-modelorako SAR balio altuena, estandarrarekin betetzen duela probatu ondoren,  $0,55 \text{ W/kg}$  da. Hainbat telefonoren eta hainbat posiziotako SAR indizeen artean desberdintasunak egon arren, guztiek betetzen dituzte EBren eskakizunak irrati-maiztasuneko esposizioari dagokionez.

\*Jendeak erabiltzen dituen telefono mugikorretarako SAR muga 2,0 Watt/kilogramo (W/kg) da batez beste, giza ehunaren hamar gramoko. Mugak segurtasun-tarte nabarmena du, jendearentzat babes gehigarria ezartzen duena eta neurrien edozein aldaketa kontuan hartzen duena. Absortzio espezifikoaren tasaren balioak (SAR) estatu bakoitzeko informazio-eskakizunen eta sarearen bandaren araberakoak dira. Beste eskualdeetako absortzio espezifikoaren tasaren inguruko informazio gehiago lortzeko, kontsultatu produktuari buruzko informazioa [www.nokia.com](http://www.nokia.com) helbidean.

# FABRIKATZAILEAREN BERME MUGATUA

## EUROPA ETA AFRIKARAKO

Berme hau Nokia Mobile Phones enpresaren Europako eta Afrikako zati batean aplikatuko da, tokian tokio bermerik badago. Materialei, diseinuari eta eskulanari dagokienez, Nokia Mobile Phones Ltd. ("Nokia") enpresak bermatzen du Nokia produktu hau ("Produktua") lehen aldiz erostean akatsik gabe dagola, zehaztapen eta baldintza hauen pean:

1. Berme mugatu hau produktuaren azken kontsumitzaileari ematen zaio ("Bezeroa"). Ez du baztertzen, ez mugatzen i) Bezeroari legez onartutako edozein eskubide, ii) Produktuaren saltzaileari/banatzeari dagokienez, Bezeroak duen edozein eskubide.
2. Berme-aldia hamabi (12) hilekoa da, lehen Bezeroak Produktua erosten duen egunetik kontatzen hasita. Produktua ondoren salduz gero edo jabea/erabiltzailea aldatuz gero, berme-aldia hasierako hamabi (12) hileko denboraldi horri geratzen zaiona izango da, eta ez da inolako kasutan aldatuko. Berme hau herrialde hauetan soilik da baliagarria eta aplikagarria: Europako Batasuneko kide den edozein estatutan, Bosnian, Bulgarian, Zipren, Kroazian, Eslovakian, Estonian, Hungarian, Islandian, Israelen, Letonian, Lituanian, Mazedonian, Maltan, Norvegian, Polonian, Txekiar Errepublikan, Errumanian, Suitzian eta Turkian.
3. Berme-aldian, Nokiak edo hark baimenduriko zerbitzu teknikoak Produktu akastuna konpondu edo ordezkatzuko du, Nokiak hala eskatuta. Nokiak Produktu konpondua edo funtzionatzeko egoera onean dagoen beste Produktu bat entregatuko dio Bezeroari. Ordezkatutako osagai edo bestelako ekipoz guztiak Nokiarenak izango dira ordutik aurrera.
4. Berme-aldia ez da luzatu edo berrituko konpondutako edo ordezkatzutako produktuetan.
5. Berme mugatu honen barruan ez dira sartuko pintaturiko karkasa edo bestelako osagai pertsonalizatuak. Operadorearen baten SIM-lock-a aktibatzea edo desaktibatzea beharrezkoa bada, Nokiak Bezeroa dagokion operadorearengana bidaliko du SIM-lock-a aktibatzeko edo desaktibatzeko, Produktua konpondu edo ordezkatu aurretik.
6. Berme mugatu honen barruan ez da sartuko ohiko erabilerari zor zaion nariadura. Kasu hauetan ere ezin izango da aplikatu berme mugatu hau:

(i) Produktuaren akatsa kasu hauen ondorioa bada: erabiltzaile-eskubiduraren adierazita ez bezala erabiltzea; bortizki manipulatzeta; leku hezeetan, murrerako baldintza termikoetan edo murrerako ingurumen-baldintzetan edukitzea, edo baldintza horien ustekabea aldatetako jasanaraztea; korrosioa; oxidazioa; baimendu gabe aldatzea edo konexioak egitea; Produktua baimendu gabe konpontzea edo irekitzea; baimendu gabeko ordezkotzeekin konponketak egitea; gaizki erabiltzea; behar bezala ez instalatzea; istripuak; meteorokoak; elikagaiak edo likidoak gainera isurtzea; produktu kimikoen eragina jasanaraztea edo bestelako ekintzak, Nokiaren arazoizko kontrolerik kanpo daudenak (esate baterako, osagai sukoiaren hutsak –adibidez, bateriak, haien ezaguriak

kontuan hartuta iraunaldi mugatua dutenak– eta antenen kalteak edo hausturak), baldin eta akatsa bera materialen, diseinuaren edo eskulanaren akatsen batek eragin ez badu.

(ii) Berme-eparen barruan, Bezeroak Nokiari edo hark baimendutako zerbitzu teknikoari akats horren berri akatsa detektatu zenetik hogeita hamar (30) eguneko epean ematen ez badio.

(iii) Berme-aldiaren barruan, Nokiari edo hark baimendutako zerbitzu teknikoari akatsa detektatu zenetik hogeita hamar (30) eguneko epean Produktua entregatu ez badio.

(iv) Produktuaren serie-zenbakia, osagarriaren fabrikazio-dataren kodea edo IMEI zenbakia kenduta, erabat edo zati bat ezabatuta, aldatuta edo ez irakurtzeko moduan bada.

(v) Akatsa sare zelularren okerreko funtzionamenduak eragin badu.

(vi) Produktua Nokiak fabrikatu gabeko edo hornitu gabeko osagarri batekin edo osagarri batera konektatu izana bada akatsaren iturburua; edo aurreikusitakoaren bestelako erabilera eman izana.

(vii) Akatsa bateriaren zirkuitulaburrak, bateriaren gordelekuaren zigiluen hausturak, zelulak hautsi edo hondatu izanak edo bateria zehaztu den bestelako produktu batean erabili izanak eragindakoa bada; edo (viii) Produktuaren softwarea eguneratu egin behar bada, sare zelularren aldatetako direla-eta.

7. Berme mugatu hau erreklamatzeko, Bezeroak hauxe aurkezteko aukera du: (i) jatorrizko berme-ziurtagiri bat, irakurtzeko modukoa eta aldaketarik gabea; ziurtagiri horretan argi adierazi beharko du saltzailearen izena eta helbidea, erosketaren data eta lekua, Produktu-mota, IMEI edo bestelako serie-zenbakia; edo (ii) jatorrizko erosketa-faktura, irakurtzeko modukoa eta aldaketarik gabea, informazio bera duena, erosketa-faktura Produktuaren saltzaileari/banatzailari aurkezten bazaio.
8. Berme mugatu hau da Bezeroak Nokiaren aurrean duen eskubide bakar eta esklusiboa, baita Nokiak Bezeroaren aurrean duen erantzukizun bakar eta esklusiboa ere, Produktuaren akatsai edo okerreko funtzionamenduari dagokienez. Berme mugatu honek beste edozein berme edo erantzukizun ordezkatzeko du, ahozkoa, idatzizkoa (legez aginduzkoa ez dena), estatutuei buruzkoa, kontratuari buruzkoa, kontratuz kanpokoa edo beste edozein motatakoa dela ere. Nokia ez da inoiz erantzule izango edozein kalteren kasuan, kalte horiek zuzenean, zeharkakoak, ondoriozkoak eta/edo osagarriak direla ere; eta ez ditu bere gain hartuko kalte-ordainak, lortu gabeko irabaziak, kostuak edo gastuak. Halaber, Bezeroa pertsona juridikoa den kasuan ere, Nokiak ez du bere gain hartuko inolako kalte zuzenik, kosturik edo gasturik.
9. Berme honetan edozein aldaketa edo aldakuntza egiteko, Nokiaren idatzizko akordioa behar da.



 **Euskaltel**  
*mòvil*

*mòvil*

